

Aterpe hutsa



Bostekoa

Alex Silva

Bagara berriz ere giro berezi horretan. Kaleak kolorez janzten diren garai horretan. Argiak gure kaleak janzten dituzte—krisi garaian behar diren edo ez, aztertu beharko da, baina beste baterako lagako dut hori—eta kantak gure herriak betetzen dituzte. Haurren ilusio aurpegiak nonahi. Gozoak, opilak, jaki ugari afari eta bazkariak hartzen ditugu gure etxeetan. Kolonia iragarriak telebistako denbora gehiena hartzen dute, plazan gaztaina erre usaina...

Zuhaitzak eta jaiotzak jartzeko garaia da. Gure etxean, behintzat, badira urteak horretarako ohitura duguna. Abendu hasierako jai-egun bat hartu, eta egun horretan apaintzen dugu etxe guztia. Baita, askotan, amamaren etxea, eta garai batean, gure denda ere.

Hala ere, aurten, ohitura aldatzeko tentazioa izan dut. Izan ere, ohiturak aldatzeko daude, ezta?



Nola daiteke diru-laguntza publikoak jaso eta inolako balore publikorik gabe jokatzea?. UZTARRIA

Hori bai, horretarako argudio serioak behar dira, sendoak. Gurean, behintzat, bai; ezin da edozein modutara ohitura bat aldatu. Gure jaiotzean aldatetako egiteko tentazioarekin ari nintzen. Aterpea hutsik jartzeko tentazioa izan

dut. Bai, hutsik. Maria, Jose, Jesus, astoa eta mandoa—gure etxean jartzen dira, ohiturei jarraituz, Benediktok esan dezala nahi duena—zuhaitz baten itzalerara jartzeko tentazioa izan dut. Aterpea itxi, eta banku baten lo-

goa jartzeko tentazioa izan dut. Berdin dio zein banketxe: BBVA, Caixa, Laboral, Kutxabank... denek antzerako jokabidea baitute.

Izan ere, gaur egun, Maria eta Jose asko dago kalean. Bankuek kaleratuak. Horrelakoa litzateke

gaurko jaiotza. Bankuek kalera-tutakoan errealtatea jasotzen duena.

Nola daiteke diru-laguntza publikoak jaso eta inolako balore publikorik gabe jokatzea? Hau da, guztion dirutik beren enpresa zuloatik atera, eta gero, diru hori jarri duen jendea kalera botatzea? Askotan, erraz epaitzen ditugu besteek ekintzak. Errazegi. «Irabazten zutena ikusita, nola liteke etxe hori erostea?», «Zuten guztia xahutu zuten, eta orain, negarrez, besteek laguntzea nahi dute»... Askotan entzuten dira horrelakoak. Gure herriko gozotegi ezaguneko arratsaldetako tertulietan arreta jarri besterik ez dugu egin behar.

Baina, iritzi horiek errealka al dira? Norberaren ekintzak aztertu ondoren, denok egin izan ditugu horrelakoak garai onetan, beraz, tentuz ibili behar gara. Gainera, kritikak beti alde batera begira egiten ditugu, maizterrari begira. Noizko epaitu banketxeak?

Epailak eta banketxeek egiten dituzten ekintzak, jendea kalean lagatzeko, zuzenak al dira? Zein da jende horren delituri handiena? Aterpe bat nahi izatea? Aterpe huts bat, nahi izatea? Trukean, banketxeek, egunero, aterpe huts asko biltzen dituzte beren karteretan.